

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak egindako inkestaren emaitzak:

Bide luzea LGBTI pertsonen berdintasuna lortu arte

Maiatzaren 14an, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziak Europar Batasunean, Erresuma Batuan, Serbian eta Iparraldeko Mazedonian beren burua lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualtzat jotzen duten biztanleen artean egindako makroinkesta baten emaitzak argitaratu ziren. Iaz burututako inkesta horretan, 15 urte edo gehiagoko ia 140.000 lagunek hartu zuten parte. Agentziak gai horretaz prestatu duen bigarren makroinkesta da, lehenbizikoa 2012. urtean egin ondoren.

Emaitza nagusiak

Inkestak erakusten duenez, gizartearen artean alde handiak daude LGBTI pertsonak diskriminatzeari dagokionez. Inkesta horretan ondorioztatu da 2012. urtetik aurrera ia ez dela aurrerapenik egin. Adierazle batzuk hobetu diren arren, beste batzuek okerrera egin dute. Europan, oso emaitza desberdina lortzen da LGBTI pertsonen berek daukaten pertzepzioak: inkestako parte-hartzaileen %40ren ustez, gutxitu egin dira aurreiritziak eta tolerantziarik eza; aldiz, %36ren ustez, areagotu egin dira. Europako LGBTIen %53k inoiz edo ia inoiz ez dute argi erakusten beren sexualitatea edo genero-identitatea. %61ek saihestu egiten dute jendarean afektua erakustea, eta %33k sarritan edo beti zenbait toki ekiditen dituzte, erasoak, mehatxuak edo jazarpenak jasateko beldurratik. Inkestan aipatzen diren bizitzako eremu guztiak kontuan hartuta, diskriminatuak sentitzen dira 18 urtetik gorako inkestatuen %41 eta 15 eta 17 urte bitarteko inkestatuen %53. Inkestatuen %38k diotenez, LGBTI izateagatik jazari dituzte inkestari erantzun aurreko urtean. Hala ere, oraindik oso baxuak dira segurtasun-indarrei eta berdintasunerako beste erakunde batzuei egin zaizkien salaketan ehunekoak. Honatx haietara ez jotzeko arrazoiak: aurkako erreakzioak pairatzeko beldurra, eta amore ematea, salaketa alferrikakoa izango delakoan.

Trans eta intersexualak

Trans eta intersexualentzat¹, berriz, txarragoak dira emaitzetako asko. Talde horiek kontatzen dutenez, diskriminazio eta jazarpen handiagoa nozitzen dute, eraso fisiko edo sexual gehiago. Horiek ere gainontzeko taldeek baino gutxiago sumatzen dute aurreiritzien eta tolerantziarik ezaren urritzea.

Intersexualak lehenbizikoz sartu dituzte inkesta horretan. Horiei dagokienez, aipatzekoa da %62k diotenez, beraiek edo beren gurasoek baimen informaturik eman gabe eta hura eskatu ere egin gabe burutu zieten beren sexu-bereizgarriak aldatzeko lehen ebakuntza kirurgikoa.

Emaitzak Espainian

Inkestak ez ditu bereizten datuak autonomia erkidegoka; beraz, ezin dira bereizi Euskaditik datozen datuak. Hori dela eta, Espainiako estatuko datuak aipatuko ditugu.

Espainian bizi diren 20.180 lagunek hartu zuten parte inkestan. Horrela bada, inkestan parte hartu zuten herrialde guztien artean, Espainiatik erantzun zuten pertsona gehienek.

Laneko eta zerbitzuetako diskriminazio-zifrak, baita indarkeria eta jazarpenari buruzkoak ere, Europako batez bestekoen oso antzekoak, aldaketa txikiak gora edo behera. Egoera horiek

¹ EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak "intersexualitate" hitza erabiltzen du honako hau izendatzeko: "pertsona baten ezaugarri fisikoetan zorrozki maskulinoaren edo femeninoaren definizio medikuekin bat ez datozen aldakuntzak agertzea. Ezaugarri horiek kromosomikoak, hormonalak edo/eta anatomikoak izan daitezke, eta maila desberdinetan ager daitezke."

segurtasun indarrei eta kidegoei edo berdintasunerako erakundeei salatzen dizkieten pertsonen ehunekoak (%11% eta %9 hurrenez hurren) Europako batez bestekoak baino zertxobait apalagoak dira. Orobat, Europakoaren antzekoa da aurreiritziak eta tolerantziarik eza areagotzearen inguruko pertzepzioa.

Espainiak emaitza hobekien erakusten ditu, argi eta garbi, jendaurrean afektua erakustea saihesteari dagokionez, %48ra mugatzen baita, Europakoaren %61en aldean. Hobe da, halaber, gobernuek aurreiritzien eta tolerantziarik ezaren kontra jarduteari buruz duten pertzepzioa: Espainiatik parte hartu zuten pertsonetatik %43ri iruditzen zaie jarduera eraginkorra eta, aldiz, European %33ri.

Eskolaren eremuko emaitzak ere nabarmenki hobekien dira. Beraien ikastetxeetan beste pertsona batzuen babesa edo laguntza jasotzen dutela dioten 15 eta 17 urte bitarteko LGBTI gazteen ehunekoa %66koa da Espainian, eta %48koa European. Era berean, beraien ikaskideek edo irakasleek LGBTI pertsonen sarridan edo beti laguntzen dietela dioten adin horretako gazteen ehunekoa nabarmen altuagoa da (%74koa, %60aren aldean). European, 15 eta 17 urte bitarteko gazteen %33k bakarrik diote beren ikastetxean noizbait aniztasun afektibo eta sexualaz modu baikor edo orekatuan hitz egin dutela; Espainian, ehuneko hori %42ra igotzen da.

Oraindik bide luzea dago egiteko

Inkestako datuek erakusten dute oraindik bide luzea dagoela egiteko LGBTI pertsonen berdintasuna praktikan lortzeko, eta aurrerabidea zaila eta motela dela. Arartekoak gogorarazi nahi du LGBTI pertsonen berdintasuna Konstituzioaren 14. artikulua babesten duela. Gainera, Euskadin, 14/2012 Legeak genero-identitateagatik egindako diskriminazioaren kontra ere babesten du, eta transexualen eskubideak aitortzen ditu. Konstituzioaren 9.2 artikulua norbanakoaren eta hura bere baitan hartzen duten taldeen benetako berdintasun eraginkorra eragozten duten oztopoak kentzera behartzen ditu botere publikoak. Horretarako, Euskadin Berdin zerbitzua dago. Oraingo alarma-egoerarako, Berdintasun Ministerioak LGBTI pertsonentzako gida bat argitaratu du. Arartekoa beti herritarrei laguntzeko prest dago, administrazio publikoen eremuan gertatzen diren diskriminazio egoerak aztertzeko.